



2017ko abenduaren 23a, larunbata ::: 225 zk. ::: www.kronika.eus :::

■ HERNANI

Adin txikikoak babesteko, hitzarmena

Zerbitzu Sozialek eta Hernani Institutuak hitzarmena berri dute, adin txikikoen babesgabetasun egoerei aurre egiteko protokoloa finkatzeko.

ELKARLANERAKO hitzarmena, aurrenezko 2016ko irailean sinatu zutena berri dute Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek eta Institutuak. Adin txikikoen babesgabetasunaren aurrean nola jokatu zehazteko protokoloa adostu dute horrela, eta hainbat konpromiso hartu dituzte. Era berean, Institutuarekin batera, herriko beste ikastetxeekin ere protokoloa lantzen ari dira. /2

■ ASTIGARRAGA

Urumea ibaia ikertzen, Herri Eskolako ikasleak

Euskal Herrian aurrenezko eDNA teknika erabiliz, Urumeako arrainak ikertu dituzte Herri Eskolako ikasleak, Elhuyarrekinekin batera. Erakusketa jarri dute gero, eskolan, ikerketaren ondorioen berri emateko, eta urtarilean kultur etxean jarriko da berriro ikusgai, herriar guztien eskura. /5

■ ASTIGARRAGA

Autobus zerbitzua medio, eztabaida

Autobus zerbitzu publikoaren lizitazioarako Foru Aldundiak proposatutako aldaketen inguruan eztabaida sortu da Udaleko alderdien artean. /5

■ GOIZUETA

Firmak biltzen, mediku eta erizainak

Abenduaren 31n, larrialdietarako herrian dauden erizainak «kanporatu» egingen dituztela ohartarazi dute, eta sinadura bilketa egiten hasi dira. /7

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-3

Goiz Eguzki, esku pelota, pala, Gabonetako kontzertua, laburrak...

Astigarraga /4-5

Txirindularitza, Inuxente Karrera, laburrak, eskelak...

Goizueta-Arano /6-7

Umore Ona Txapelketa, Gabonak...

Urumea /7

Gabonak Ereñotzun eta Aranon

Ereñotzu /8

Maritxu Aranburu artisaua



Gabon kantu kantari, dei eginez Olentzerori

Kontzertuak izan ziren atzo Ereñotzun eta Hernanin, eta gaur eta bihar ere Gabon doinu gehiago entzungo dira Urumea osoan. /II, IV, VI, VII

BON 10+

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.



ERREMONTA

www.bono10.eus

UDALA-HERNANI BHI HAUR ETA NERABEEN PROTOKOLOA

Babesgabetasun egoeren protokoloa, berrituta

Hitzarmena berritu dute Zerbitzu Sozialek eta Hernani Institutuak, zehazteko nola jardun adin txikikoen babesgabetasun egoeretan.

BERRITU egin dute lankidetzaz hitzarmena, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek eta Hernani BHI Institutuak, haur eta nerabeen babesgabetasun egoeretan jarduteko protokoloa finkatzeko. 2016ko irailean sinatu zuten aurrenekoz, eta berritzea adostu dute, emaitza onak ikusita: «elkarlan honek onurak ekartzen dizkie familiei, laguntza haien beharretara egokitzen delako. Udalaren, Institutuaren eta familien elkarlana sustatzen da, umeen eta nerabeen garapen osasuntsua lortzeko», adierazi dute.

Hitzarmena sinatuta, hainbat konpromiso hartu dituzte bi aldeek. Zerbitzu Sozialek, teknikari erreferenteak izendatuko dituzte gai horretarako, Kale Heziketako profesionalak ikastetxean heziketa lana egingo dutela ziurtatuko dute, jarraipen-mahairako langileak izendatuko dituzte, eta prebentzio mailan antolatutako ekimenen berri emango dute Institutuan, eta partehartzea erraztu.

Institutuak, berriz, protokoloaren berri emango die irakasle guztiei, eta bete egingo ditu bertan jasotako puntuak.

Berak ere, jarraipen-mahairako langileak izendatuko ditu.

Herriko beste ikastetxeekin ere lanean, Zerbitzu Sozialak Institutuarekin bezala, herriko beste ikastetxe batzuekin ere ari dira protokoloa lantzen, Zerbitzu Sozialak. Babes zerbitzuak, 97 pertsona artatu ditu aurretik; haur eta nerabeak eta haien senitartekoak, hain justu.

Hori ikusita, zerbitzua indartu nahi izan du Udalak; eta 2018ko aurrekontuan, %7ko igotzea izango du adingabe eta familiekin lotutako zerbitzuak. ||



Xabier Lertxundi Zerbitzu Sozialetako presidentea eta Aintzane Ibarzabal Hernani BHI Institutuko zuzendaria, hitzarmena sinatzen. Argazkia: Hernaniko Udala.

GABONETAKO KONTZERTUA

Musika Banda eta bi abesbatza, batera

Gabonetako kontzertua eskainiko dute, 20:00etan San Joan Bataiatzailean.

GABONETAKO kanta eta doinuak, parrokiara iritsiko dira gaur, hiru talderen eskutik: Hernaniko Musika Bandak, Ozenki abesbatzak eta Goizuetako Umore Ona abesbatzak, Gabonetako kontzertua eskainiko dute, San Joan Bataiatzailearen parrokiaren.

Iluntzeko 20:00etan izango da hori, eta Imanol Kamiok, Eneko Amundarainek eta Roberto Pachecok zuzenduta, 14 pieza jo eta kantatuko dituzte.

100 musikari inguru, guztira Kontzertuan, Urumea bailara osoko musikariak elkartuko

dira, Goizueta, Ereñotzu, Astigarraga eta Hernanikoak. Eta ez gutxi, gainera! Guztira, 100 musikari inguru izango dira. Hain justu, horregatik emango dute parrokiaren gaurkoa, Agustindarren eliza txiki geratu delako kontzerturako.

Eta asko badira musikari eta abeslariak, anitza izango da errepertorioa ere. Eskainiko dituzten abestien artean, izango dira bertakoak, euskeraz abestuko dituztenak; baina baita kanpokoak ere, hainbat: *A Christmas Carol Fantasy*, *Santa Claus is coming*, *Zeruko deia*, *Birjiña maite...* ||

GOIZ EGUZKI



Karta eta kaleko jokuetako txapeldun eta azpitxapeldunek jaso zuten saria, ostegunean.

Santo Tomas egunez, txistorra ez zen izan sari bakarra!

Ondo ospatu zuten Santo Tomas eguna, Goiz Eguzki jubilatuen egoitzan, hamaiketako eder batekin. Baina txistorra ez zen izan sari bakarra, ostegunean; karta eta kaleko jokuen sariak ere banatu zizkieten, irabazleei: musean, Valentin Higuero eta Mere Puertas txapeldun; tutean, Agustin Cormenzana eta Esteban Holgado; puntuan, Eugenio Urruzola eta Lazaro Montero; eta eskoban, Maria Dolores Anabitarte eta Mari Paz Lunaro; eta kaleko jokuetan, Josefa Sanchez emakumezkoetan, eta Jesus Brillo gizonezkoetan. Azpitxapeldunek ere jaso zuten saria. Eta bertan zozketatu zituzten, baita ere, Gabonetako lau saskiak; hauek izan dira irabazleak: Maria Nieves Marin, Isabel Da Silva, Sara Merino, eta Maria Oliva Naveiro. ||

Ginekologoa daukazu Hernanin, María Gregorio Alzua medikua
Hernaniko mediku zentroan (Urbietako kalea 18, behea)

// Urteroko azterketak // Amniocentesiak
// Haurdunaldi kontrolak // Antisorgailuen kontrolak
// Erditzeak // DIU...
// Kirurgia // Azkura, ondoak

Hilzordua eskatu **943 55 76 72ra** deituz
ORDUTEGIA
10:00etatik 13:00etara
eta 16:00etatik 18:30etara

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen

Epelen auzoa, 7
943 552 480 - 647 208 702

BARRENE PALAK
49729255

Oroigarri edo omenaldietarako grabatutako palak egiten ditugu, bakoitzaren gustora.

HERNANIN EGITEN DIREN PALA ETA PALETAK T. 699 729 205
info@barrenepalak.com

ERREMONTA BINAKAKO TXAPELKETA

Dena prest, baita txapelak ere!

Gaur jokatuko dute Binakako Txapelketaren finala, 16:00etan, Utergak eta Etxeberria IIIk, Ezkurra II eta Endikaren kontra.

LAU protagonista eta bi txapela izango ditu erremontek, gaur: Binakako Txapelketaren final haundia jokatuko dute, arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdian, Galarretan.

Aurreko urtean jantzitako txapela, berriro lortzea bilatuko dute Utergak eta Endikak, baina ez dute biek lortuko, bando desberdinetan ari baitira aurreten, elkarren kontra: Etxeberria III herrikidearekin Uterga, eta Ezkurra II gaztearekin Endika.

Nafarrak izango dira lau

finalistak, gainera; aurreneko aldiz 2008tik.

Pelota aukeraketan, «pozik»

Finalerako nahi zuten materiala aurkitu zuten lau erremontistek, pelota aukeraketan; eta «pozik» geratu ziren. Pelota bi-ziagoak aukeratu zituzten Ezkurra IIk eta Endikak, erritmo biziko eta mugimendu askoko partidua izan dadin; eta aldiz, motelagoak Utergak eta Etxeberria IIIk, lan gehiago eskatuko duen partidua bila.

Finaletan arituak, lauak

Edozein kasutan, finala ez da berria izango, inorentzat. Arituak dira dagoeneko, lauak: bina txapela dauzkate Utergak eta Endikak, txapela bat Etxeberria IIIk, eta oraindik palmaresa estreinatu ez badu ere, Ezkurra IIk hirugarren finala du lau urtean. Esperientzia lagun izango dute denek ere, beraz.

Eta baita sasoi eta motibazioa ere: txapelketa gaizki hasi ondoren, nabarmen egin dute gora, bi bikoteek. ||

ESKU PELOTA

Gabonetakoa, gaurtik

36 pelotari ariko dira torneoan, hiru astez.

GAUR hasiko da, kiroldegiko frontoian, Gabonetako Torneo azkarra. Guztira, Hernaniko 36 pelotari ariko dira, benjamin eta alebinak; eta hiru aste iraungo du txapelketak. Gaur, 10:00etan hasita, 18 partidu jokatuko dira; eta 15:00etan hasita, beste 18 partidu. Finalak, urtarrilaren 7an izango dira.

Gipuzkoakoan, klabeak

Gainerako torneoetan, berriz, 12 partidu jokatuko dituzte guztira, pelotari hernaniarrek. Garrantzitsuenak, Gipuzkoako Txapelketan, ligaxkako azken jardunaldia baita. Azken fasera sailkatzeko jokatuko dute Aratz Tejedor, Garikoitz Arizmendi eta Ekaitz Cisnerosek. ||

PALA

Bi finaletan, hernaniarrak

BI final jokatuko dituzte gaur, eta bietan izango dira hernaniarrak. Gipuzkoakoan, Ereñotzun jokatuko dute 11:00etan, Maider Zugastik eta Garazi Urdangarinek, Aiaren kontra.

Emakumea Pilotarin, aldiz, 17:30etan daukate finala Tolosan, Amaia Irazustabarrenak eta Mari Muruak, Garmendia eta Arrillagaren kontra. ||

SANTO TOMAS

Portu auzoan gaur, txistorrada

Ostegunean izan zen Santo Tomas eguna, baina gaur ospatuko dute Portu auzoan, txistorradarekin: Ibarrolaburu plazan, 12:00etan. ||

GOIZ ARGI

15garren urteurrena ospatzeko, festa

15 urte dira Goiz Argi taberna ireki zutela, eta ospatzeko, festa egingo dute gaur, 19:00etatik 04:00etara. Denetik izango da: Abereh bakarlarria, Gorpuzkingz, pikoteoa, oparitxoak eta musika. ||

KALERA KALERA

Zaballara martxa gaur, Donostian

Gabonetarako hainbat mobilizazio deitu ditu Kalera Kalera dinamikak, eta gaur, Zaballara martxa egingo dute Donostian, 11:00etan Subijanatik abiatuta. Hilaren 31n, berriz, Martutenera martxa egingo dute, eta Zinkoeneatik abiatuko da zutabe bat, 10:00etan. ||

BITERI

Aretoaren egokitzapenei buruz, bilera

Bilera deitu dute datorren asteazkenean, 19:00etan Biteriko areto nagusian, bertan egingo diren egokitzapenen inguruko azalpenak emateko. Beste espazioetan egindako lanak ere aurkeztuko dira. ||

FUTBOLA

Joxan Arabiotorre Txapelketa, gaur

Gaur jokatuko dute, 11:00etan Zubipen, Joxan Arabiotorreren omeneko txapelketa. Laugarren edizioa izango da, eta Emakumezkoen Euskal Ligako Hernanik jokatu du, Liga Nazionaleko Eibarren kontra. Talde eibartarrean ari dira, CD Hernaniko jokalaririk izandako hiru: Kattalin Badiola, Olatz Santana eta Iraide Pejenaute. ||

KIROLDEGIA

Bihar eta etzi itxita, kiroldegia

Gabonak direla eta, kiroldegia itxita egongo da bihar eta etzi, eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean. Abenduaren 30ean, berriz, igerilekuak itxiko dituzte arratsaldean, igeriketa txapelketagatik. ||

AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortulako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasangarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

bidegi.eus

GABONAK

Inuxenteak bezala korrika, bihar iritsiko da Olentzero

Inuxente Lasterketa egingo dute gaur; Olentzero eta Mari Domingi, bihar.

GABONETAN bete-betea sartuta, kirola izango da protagonista gaur, Astigarragan, Inuxente Lasterketarekin. Arratsaldeko 16:00etan hasiko dira haurren probak, eta 17:30etan helduena (6 km), ikatza aurretik. Bertan eman ahal izango da izena, eta 5 euro dira; haurrek, doan.

Eta gaur bertan, irteera antolatuta du Mundarroko txirrindulari taldeak, 09:00etan Kale Nagusiko farmaziatik, Zumaiara joateko (70 km).

Olentzero eta Mari Domingi, Santiomenditik barrena
Gaurko kirol kontuei, Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak



Gabon kanten emanaldia eskaini zuten aurreko igandean, Andre Mari elizan.

Argazkia: NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLA

hartuko die erreleboa bihar. Santiomendi auzoa bisitatu dute 10:00etatik 11:00etara, eta Santio Zeharra kaletik jaitsiko dira herrira, trikitilariekin batera, Aiotzategi eta Joseba Barandiaran plazetatik pasa, eta Foru Plazara iristeko. Bidean jasoko dituzte gutunak, eta baita goxokiak banatu ere.

Haur eta gazteentzako hainbat zita, asteartetik
Bestalde, asteartean izango dira eskubaloiko ate irekiak kiroldegian, eta egun horretan hasiko dira, Gabonetako beste hainbat ekintza: Jolas Aretoa kultur etxean, Jolas Txiki kiroldegian, eta Mundaroren Futbol Kanpusa Zarkumendegin. ||

TXIRRINDULARITZA

Lider jarraitzen dute, Jaime Romero eta Urko Semperena astigartarrek

Pista Sariako aurreneko postuari eutsi diote, kadete eta open kategorietan. Kluben artekoan, bigarren dago Donosti Berri.

LEHIA bizia daukate Pista Saria irabazteko, Urko Semperenak Igor Arrutirekin open mailan; eta Jaime Romerok Asier Pozorekin kadeteetan. Bietan, lider jarraitzen dute astigartarrek.

Semperenak aurrea hartu zion scratcheko azken esprintean Arrutiri, hirugarren izateko; baina Arrutik puntu batzuk atera zizkion astigartarri puntuazioan. Horrela, 29 punturen

aldean mantentzen du Semperenak, sailkapen nagusian.

Romerok, berriz, Pozori bi probak (tempo eta puntuazioa) borrokatu arren, bigarren izan zen bietan, haren atzetik. Hortaz, 6 puntu kendu dizkio Pozok, baina 16 puntura dago oraindik.

Juniorretan, azkenik, Telmo Semperena 7garren izan zen eliminazioan, eta 11garren puntuazioan. 11garren dago orain.

Donosti Berri bigarren bi mailetan, klub artekoan

Joan den asteburuan jokatu zen Klub Arteko Koparen aurreneko jardunaldia ere, kadete eta juniorrentzat; eta tartean, Donosti Berrirekin, Romero eta Semperena. Eta bi mailetan, bigarren jarri dira. Sei probetatik hiru irabazi zituen Romerok.

Pista Sariak gaur dauka seigarren jardunaldia, 16:00etan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzten duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† BENITO RUIZ GARCÍA

JAUNA

Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Paquita Fernández; seme-alabak: Lourdes eta Txema, Ana eta Jantxo, Pedro eta Nekane, Alfre eta Idurre; bilobak: Aitzi, Aroia, Ane eta Xabier, Aitor, Maddi, Jokin, Peru, Xabat eta Beñat; anai-arrebak: Cris, Secun (+) eta Feli; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BAUTISTA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 23an

Helbidea: Santa Barbara auzoa
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 11:30ak arte.



† BENITO RUIZ GARCÍA

Langile fina, lagunkoia ta, familiako gizona argi daukagu, hala zarela, kanpo ta barru zu ona horregatik merezi dezu, maitasuna guztiona gurekin zaude, beti ondoan, maite zaitugu, aitona.

ZURE BILOBAK: AITZI, AROIA, ANE ETA XABI, AITOR, MADDI, JOKIN, PERU, XABAT ETA BEÑAT
Hernanin, 2017ko abenduaren 23an



BENITO RUIZ GARCÍA

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik.

LUJANBIO-GALDEANO SENDIA

Hernanin, 2017ko abenduaren 23an



BENITO RUIZ GARCÍA

- Goian Bego -

Errealitate zoragarria izan zinen eta orain amets zoragarri bat zara. Gure parte bat zurekin dijoa.

HERNANIKO ODOL EMAILEN DELEGAZIOA

Hernanin, 2017ko abenduaren 23an



† III. URTEURRENA M^a Dolores Aguirrezabala Arizabalo

2014ko abenduaren 23an hil zen, 81 urterekin

-Goian Bego-

ETXEKOAK MAITASUNEZ

Urteurreneko meza, **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko 19:00etan, **Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 23an



**FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK**

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

■ AUTOBUS ZERBITZUA

EAJk eta EH Bilduk eztabaida, autobus zerbitzuaren inguruan

EAJk adierazi du, «kanpaina alarmista» egiten ari dela EH Bildu; «%11ko murrizketa onartu izana» leporatu dio EH Bilduk, EAJri.

AUTOBUS zerbitzu publikoaren lizitazioarako, aldatetarako proposatu zituen Foru Aldundiak; eta gai horren inguruan, eztabaida piztu da berriro Astigarragan, EAJ eta EH Bilduren artean, azaroko plenoan PSE-EEren mozioa onartu ondoren, EAJ eta PSE-EEren botoekin.

«Bertan, eskatu genion Aldundiari aldatetarako Astigarragako autobus zerbitzua hobetzea, eta hala izango dela espero dugu. Astigarragako izan zen beraiekin harremanetan jartzen aurreneko Udala, aurreproiektua aurkeztu zenean, eskatzeko informazioa eta alegazio epea zabaltzea. Eta guk aurkeztu genuen alegazioan, eskatu genuen zerbitzua mantentzea gutxienez oraingo maiztasunarekin; eta gogorazi genion, oraingoz herriak ez daukala beste garraio zerbitzu publikorik».

«Ezinbestekoa da esleipena berritzea, 30 urte eta gero»
Eta bestetik, Gobernu Taldeak kritikatu du EH Bilduren jarraia: «mozioaren kontra bozka-

tu zuen, eta uste dugu kanpaina alarmista bat egiten ari dela gaiaren inguruan. Ez dugu ahaztu behar, aurreko legealdian, EH Bilduk Aldundiko Mugikortasun Saila zuzentzen zuenean, haiek ere saiatu zirela zerbitzua lizitatzen. Uste dugu ezinbestekoa dela esleipena berritzea, 30 urtez lizitatu gabe egon ondoren».

«EAJk adierazi du luxua dela ospitale eta unibertsitateko autobus zerbitzu zuzena»

EH Bilduk, bere aldetik, kritikatu du onartutako mozioak, «funtsean murrizketak babesitu» egiten dituela. EH Bilduk berak, mozio bat aurkeztu zuen plenoan, «Andoainen eta Usurbilen onartu dena, EAJren babesarekin. Baina Astigarragako EAJk ez du babestu; astigarraron interesen alde lanean aritu beharrean, herritik kanpoko nagusiek hartutako erabakiak onartzeko dago», salatu du EH Bilduk.

Gobernu Taldeak Aldundiari aurkeztutako alegazioaren inguruan ere, bere iritzia eman

du EH Bilduk: «nahiz eta gero kontrakoa saldu nahi izan, EAJk dagoeneko onartu du A2 linean %11ko murrizketa egitea, astean zehar. Horrek garbi erakusten du zein den estrategia. Aldundiak aurreneko kolpean murrizketa oso bortitzak planteatu ditu, gero murrizketa txikiagoak jasotzeko lizitazioan, eta herritarrek errazago onartzeko».

Alegazioari buruz, bestalde, aipatu du: «EAJk erabat ahaztu zuen A3 edo ospitalera eta unibertsitateetara joateko autobus zerbitzua. A3aren kasuan, EAJ biluztu zen azkenean; ez du A3a babesten, luxuzko autobus zerbitzua zela aldarrikatu zuen. Orduan zer sagardotegietara joateko eta astigarrarrok ordaintzen dugun doako autobus zerbitzuari buruz? Lotsagarria da adieraztea, luxua dela ospitale eta unibertsitateetara autobus zerbitzua», kritikatu du.

Eta herritarrei eskatu die, adi egoteko: «dena ez dago galduta, eta murrizketak geldiaraziko badira, guztion inplikazioaz izango da». ■

■ HERRI ESKOLA ETA ELHUYAR



Ur-laginak biltzen aritu dira Herri Eskolako ikasleak, ikerketa egiteko.

Argazkia: ELHUYAR FUNDAZIOA

Urumeako arrainei buruz, ikerlana

Ikastolako haurrek egin dute, Elhuyarrekin.

ELHUYAR Fundazioaren ZientziakIDE proiektuaren baitan, ikerketa burutu dute Astigarragako Herri Eskolako ikasleek: Urumea ibaiko eta bere bi errekaetako arrain espezie jakin batzuk bilatu dituzte.

Ikerketaren emaitzak, asteartean aurkeztu zituzten ikastolan bertan. Bertan, gainera, erakusketa egon da ikusgai, hamar egunez; eta erakusketa hori bera, kultur etxean jarriko dute, urtarilaren 22tik otsailaren 5era.

«Gipuzkoako ibairik garrantzitsuenetakoa da Urumea, eta interesgarria litzateke han bizi diren arrainen katalogoa osatzea, espezie batzuk arris-

kuan baitaude, eta beste batzuk, aldiz, kanpotik ekarriak dira», azaldu dute. Ikerketan, ikusi nahi izan dute, adibidez, lanproia Urumeara bueltatu ote den, edota perka amerikarra eta siluroa bezalako espezie inbaditzaileak, iritsi ote diren.

Teknika, berritzailea

Proiektuan, ikasleak zientzietan batera aritu dira, zientzia mundua barrutik ezagutzuz; eta eDNA teknika erabili dute arrainak detektatzeko, aurrenekoak Euskal Herrian. Horrekin, arrainek uretan utzitako DNA aztertu dute, ikasleek bildutako ur-laginekin. ■

MERKATUKO HIPOTEKA-MAILEGU AUKERA GUZTIAK EZAGUTZEN DITUZU? PASATU AL ZARA BANKOAKO CRÉDIT AGRICOLETIK?

Bankoa Crédit Agricole hipoteka-mailegu aukera ezberdinak dituzu, zure egoera pertsonalari hobekien egokitzen zaiona aukeratu dezazun; tipo aldagarria, tipo finkoa edo tipo mistoa. Hiru aukera ezberdin, oso leihakorrak, zure etxea erosi aurretik ezagutu behariko zenituzkeenak. Oraindik ez baduzu egin, pasatu zaitez Bankoa Crédit Agricoletik eta argitu itzazu zalantzak.

Juan de Urbieta, 12. Esquina Txirrita, Hernani, Tel.: 943 33.01.03



■ GABONAK

Turroiak prest... badator Olentzero!

Turroi eta mazapanak egiteko ikastaroa eta abesbatzen emanaldia izan ziren aurreko asteburuan, eta bihar iritsiko da Olentzero.

ONDO girotuta iritsi dira Gabonak Goizuetara! Aurreko asteburuko bi zitekin, bereziki. Batetik, turroi eta mazapanak egiten ikasi zuten, Azaro Kulturaren barruan, Bidatz Barrenetxea hernaniarrak eskaini zuen tailerrarekin. Gustora asko aritu ziren, bertaratutako 9 herritarrek, Eskolako sukaldean saltsan; eta Cebank sukaldaritza-hostalaritza eskolako irakaslearen eskutik, ikasi zuten mazapanak, turroi gogorra eta turroi biguna nola egin.

Beraz, Gabonetako otorduetan, etxean egindako gozoak izango dituzte aurten zenbaitetik, Goizuetan!

Eta kantarik ere ez da falta, noski! Horretatik ere izan zuen, aurreko asteak: Umore Ona abesbatzak eta herriko gaztetxoek, Gabonetako emanaldia eskaini zuten elizan, eta afari baten bueltan borobildu zuten eguna.

Olentzerorekin, hiru zita
Gabon giro hori ikusita, desiatzen egonen da Olentzero, Goi-

zuetara etortzeko! Bihar iritsiko da: arratsaldeko 18:30etan sartuko da herrian, eta Plazan edo frontoian egingen du geldialdia, haurrekin egoteko. Gutunak jaso, eta goxokiak banatuko dizkie.

Goizean, hala ere, Olentzero hartuta aterako dira kantuan Eskolako haurrak, 11:00ak aldera, DBHkoentzat dirua biltzeko; eta hamaiketako ere egingen dute elkarrekin. Arratsaldean, berriz, presoan aldeko Olentzeroa aterako da, 15:30-16:00ak aldera, eta arratsalde osoan zehar arituko dira kantuan. Olentzero iristean ere, kantuan egingen diote ongiatorria.

Tailerrak, datorren astean
Datorren astean ere, izanen dituzte zitak, herrian. Eguberri-tako tailerrak egingen dituzte hiru egunez, haurrentzat: aste-arte eta asteazkenean Goizuetan, eta ostegunean Aranon. Goizeko 10:00etan hasi, eta 13:00etara arte izanen dira, hiru egunetan. Parte hartzeko, aurrez apuntatu behar zen. ■



Gabon kantak eskaini zituzten Umore Ona abesbatzak eta herriko gaztetxoek, elizan.

Argazkia: FELIX LOIARTE



Turroi eta mazapanak egiten ikasi zuten tailerlean, Bidatz Barrenetxearen eskutik.

Argazkia: GOIZUETAKO UDALA

kronikalari
BAT
€uro
BAT

AZAROAREN 18TIK
ABENDUAREN 27RA

URUMEAKO
kronika

1k

Kronika irakurtzen baduzu,
Kronika gustatzen bazaizu,
zu ere Kronikako parte bazara,
zu ere KRONIKALARI bazara,
komertzio hauetan duzu zure
aportazioa egiteko aukera:

ASTE HONETAN KRONIKALARI EGIN DIRA:



AXERRIAK MENDI LASTERKETA TALDEA



GOIZUETAKO UMORE-ONA ELKARTEA



EREÑOTZUKO TXIRRITA ESKOLA

EREÑOTZU GABONAK



Txistorra bokadillo ederrak prestatu zizkieten auzotar guztiei, Txirrita eskolako ikasleek.

Auzotarrak kantari, 'Gabon goizean'

Bihar goizeko 09:30etan aterako dira Gabon eskean, eskolako Katiluzar Guraso Elkarteak antolatuta.

GIRO ederrean iritsi dira ereñotzuarrak asteburu-
ra, Gabonen atarira!

Ondo baino hobeto ospatu zuten Santo Tomas eguna, ostegun goizean, Txirrita eskolan. Txistorra bokadillo ederrak prestatu zizkieten ikasleek, auzotar guztiei; eta musikarik ez zen faltatu!

Eta ezta atzo ere! San Antonio elizan elkartuta,

Gabonetako kontzertua eskaini zuten Hernaniko Ozenki abesbatzak eta Doinu Zale musika eskolak, eta Txirrita eskolako ikasleek.

Gabon eskean, bihar
Bihar, berriz, urteroko zita jarri dute, Gabon gaua dela eta. Goizean egingo dute aurten, eta 09:30etan elkartuko dira, «ahotsak

indartu eta martxan jaritzeko». Gabon eskean aterako dira baserriz baserri eta etxez etxe, Txirrita eskolako Katiluzar Guraso Elkarteak antolatuta.

Animatu eta kantuan ateratzeko deia luzatu diete elkartetik, eskolako haurrei eta haien gurasoei, eta baita auzotar guztiei ere: «kantuan ikusiko gara!». ||

GOIZUETA UMORE ONA TXAPELKETA

Apezetxea eta Sagardui, semifinalen bila gaur

Laugarren jardunaldiko zazpi partidu jokatu dira, 10:00etan hasita, eta beraiek dira goizuetar bakarrak.

SEMIFINALETARA ari da gerturatzen, Umore Ona Esku Pilota Txapelketa; eta gaur, ligaxkako laugarren jardunaldiko partiduak jokatu dituzte, goizeko 10:00etan hasita. Zazpi partidu izanen dira guztira, kategoria desberdinetakoak.

Eta benjaminetan, bi goizuetar ariko dira: Apezetxea eta Sagardui, Aldabideko Olarra eta Razkinen kontra. Semifinale-

tarako txartelaren bila joango dira goizuetar-
rak, aurreneko bi partiduak irabazi ondoren.

Hain justu, datorren asteburuan eta urtarrileko lehenengoan dago aurreikusita, semifinalak jokatea; eta finalak, urtarrilaren 13an.

Aurreko asteburua, kaxkarra herrikoentzat
Ondo ari ziren Goizuetako pilotariak orain arte, etxe-

ko txapelketan. Aurreko asteburua, ordea, kaxkarrak izan zen herritarrentzat: lau partidutik hiru galdu zituzten.

Apezetxea eta Sagardui izan ziren, irabazi zuten bakarrak, Elozegi eta Bidezabalen kontra (18-14). Salaberria eta Ruiz benjaminen 2-18 galdu zuten, Legarreta eta Elizegi alebinek 4-18, eta Aizkorbe eta Apezetxea jubenilek (20-22). ||

ARANO GABONAK

'Artantxuriketan' emanaldia, gaur

Maisuenean izanen da, Maria Jesus Zugarramurdi eta Ansa ahizpekin, 18:00etan. Bihar goizean, berriz, kantuan aterako dira aranoarrak.

BI zita berezi jarri dituzte asteburuan, Aranon ere, Gabonak ondo ospatzeko. Eta aurrenekoa, gaur bertan izanen dute, Maisuenea aretoan. Aranoarrak ikusle, eta saioaren protagonistak ere, aranoarrak izanen dira: *Artantxuriketan* emanaldia eskainiko dute, Maria Jesus Zugarramurdi, eta Ansa ahizpek; Arantxak, Ainhoak eta Maiderrek, hain zuzen ere.

Arratsaldeko 18:00etan izanen da emanaldia, eta herritar guztiei luzatu diete gonbitea, bertaratzeko. Doan izanen da saioa.

Gabon kantuan, bihar goizean

Bihar, berriz, abenduaren 24a izanik, ez du huts eginen goizeko bueltak. Elkarrekin aterako dira kantuan, herriko haur, gazte eta helduak.

Eta datorren astean, Eguberritako tailerrak izanen dituzte haurrek. Hiru egunetan eginen dira, astearte, asteazken eta ostegunetan; eta aurreneko biak Goizuetan izanen badira ere, hirugarrena, osteguneko, Aranon eginen dute. Maisuenean emanen dute tailerra, goizeko 10:00etan hasi eta eguerdiko 13:00ak arte. ||

GOIZUETA

Firma bilketa martxan, erizain eta medikuak mantentzeko

Abenduaren 31n, herrian larrialdietarako dauden erizainak kanporatuko dituztela ohartarazi dute.

FIRMA bilketa jarri dute martxan Goizuetan, eskatzeko «orain dauden erizain eta medikuak mantendu ditzatela, eta beraien lan baldintzak hobetu ditzatela». Izan ere, ohartarazi dute, 2017ko abenduaren 31n «kanporatu» egingo dituztela, herrian larrialdietarako dauden erizainak: «beraien kontratua bukatutzat emanen zaie, egiaz emanen ez diren lan hobekuntzak aitzakia hartuta. Honen ondorioz, ez dakigu beste erizainik etorriko den,

edota etortzen direnek zein baldintzatan eginen duten», azaldu dute, sindurak bilketarako zabalduak orrian.

Bertan diote, baita ere: «orain dela bi urte, herrian jasan genuen bi mediku eta bi erizainen alde egitea, pairatzen zituzten lan baldintza kaxkarrenatik. Osasunbideak eta Nafarroako Gobernuak, zer egin nahi dute gure herriko larrialdietako guneekin eta langileekin? Ohartzen direla herritarrok pairatzen ditugula ondorioak?». ||

ZUBI-LANA

Lan bila dabilen herritarrek bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari; mezuan azaldu beharko du zein lan mota bilatzen duen edo zertarako eskaintzen duen bere burua. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoan argitaratuko die, debalde.

Bi kasuetan, ostiral eguerdia baino lehen, iragarkiak lan@kronika.eus helbidera bidali behar dira edo 943 33 08 99 telefonora deituta azaldu. Gehienez 235 karaktere onartuko dira, hutsuneak barne.

LAN-BILA

Kamarero edo enkofradore bezela lan bila, deitu: 665424207

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte Lan-taldea: A. Arbelaitz, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, I. Lujanbio, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur. Egoitza: Laramendi 11(Hernani) ☎ 943 33 08 99 - 688 660 714.
Eposta: kronika@kronika.eus, astigarraga@kronika.eus, urumea@kronika.eus eta publi@kronika.eus. Lege gordailua: SS-400/2014 ISSN: 2341-2976

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) | **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)
DYA: 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
/ Egunez: **Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** / **Gauz:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

EGURALDIA

GAUR

Goizean goiz lainotuta egongo da, eta euria egingo du; baina pixkanaka atertu eta argituz joango da. Tenperatura ez da aldaketarik izango, eta iparraldeko haizea ibiliko da. **Min.7° / Max.11°**

BIHAR

Giro eguzkitsua izango dugu bihar. Hegoaldeko haizea ibiliko da, eta zerua nahiko garbi. Horren ondorioz, tenperaturak ere gora egingo du, pixka bat. **Min.4° / Max.14°**

(euskaime)



EREÑOTZU MARITXU ARANBURU

Artisau lanak ordaintzeko, 'kriptotxanpon' modernoak

Txanpon digitalekin ordaintzeko aukera jarri zuten Maritxu Aranburu ereñotzuarrak eta Dawa Fernandez donostiarrak beraien postuan, Zumarraga eta Urretxun. Gaur, Tolosan.

EZEZAGUNAK dira askorentzat, oraindik, kriptotxanponak edo txanpon digitalak; «baina uste baino gehiagok entzun dute zerbait horri buruz», diote Maritxu Aranburu ereñotzuarrak eta Dawa Fernandez donostiarrak. Orain bi aste, Zumarraga eta Urretxuko Santa Luzia azokan, beraien eskuz egindako bufanda, txano, turbante eta pitxien postuan, kartel bat jarri zuten: txanpon digitalekin ordaindu daiteke.

«Jendea harrিতuta geratzen zen! Batzuek ez zuten sekula entzun, baina hori zer da? zioten; beste batzuek, aldiz, bazezkiten zerbait, eta begira, txanpon digitala! komentatzen zuten beraien artean. Atentzioa deitu zuten asko», dio Aranburuk.

Berak onartzen du, ez duela

«askorik kontrolatzen horri buruz. Badirudi laster egongo dela oso zabaldua, eta errazagoa izango dela ordaintzeko. Dena oso azkar doa, niretzat exajeratu xamar. Baina Dawak asko kontrolatzen du horri buruz», kontatu dio Kronikari.

«Pixkanaka kriptotxanponak normalizatzea da asmoa»

Azokan, postura gerturatu eta txanpon digitalei buruz galdeztzen zutenei, Dawa Fernandezek ematen zizkien azalpenak. Eta Kronikari ere azaldu dio: «kriptografia erabiltzen duten txanponak dira, balio eskualdaketa bezala ulertuta, ez bakarrik dirua. Eta kriptotxanpon mota asko daude. Guk lau jarri genituen aukeran, azokan ordaintzeko: bitcoin eta ethereum

izenekoak batetik, ezagunagoak direnak; urrea bezala dira, balio handia daukate baina transferentziak oso garestiak dira. Eta bestetik, litecoin eta dash, transferentziak merkeago ateratzen direnak. Nik dozena bat txanpon mota baino gehiago dauzkat».

Hain justu, arlo horretan egiten du lan Fernandezek: «kriptotekintzailea naiz, nolabait esateko; kriptotxanponen komunikazio eta garapenean egiten dut lan, eta azokakoa, izan zen modu bat hori normalizatzen hasteko; eta bide batez, analisi soziologiko bat egiteko, zenbat ezagutzen den. Sortu zuen espektazioa izaugarria izan zen». Gaur, Tolosako azokan egongo dira, eta ez da faltako aukera, kriptotxanponez ordaintzeko. ||



Maritxu Aranburu, Santa Luziako azokan jarri zuten postuan; eta ondoan, txanpon digitalekin ordaindu zitekeela zioen kartela. Argazkia: Dawa Fernandez.

IRAGARKI MERKEAK

Zerbitzaria behar da tabernan lan egiteko. Deitu: 943 55 75 09

Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo labaka kalean, Hibi taberna. Deitu: 943 21 78 56

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

OPARITZEKO	OPARI BONOAK PRESTATZEN DIRUGU	ASE SANTUA 2018
LISBOA Otsailaren 8tik hegaldia 6 gau 3* hotelean gosaria barne	370 ¹⁰⁰ €	Club Marco Polo Bidaiek leidean (informa zailtezi) Polonia, Islandia, India, Madagaskar
SARRIATIK SANTIAGORA bidea (100km) Urte osoan 6 gau, 3/4* hoteletan gosaria barne + motxila tresledua.	420 ¹⁰⁰ €	PARIS Martxoaren 29a Miaritzetik hegaldia 4 gau 2* hotelean, gosaria barne
PUENTE VIESGO BAINUETXEA 2 gau, pentzio erdian + zirkuitua + "flotarium"	208 ¹⁰⁰ €	CUBA ZIRKUITUA Martxoaren 23an Miaritzetik hegaldia 6 gau 3* hoteletan, pentzio erdian
2018		ESTAMBUL Martxoaren 29an Bilbotik hegaldia 4 gau 4* hotelean, gosaria barne
LANZAROTE Urriaren 24an Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean, dena barne	500 ¹⁰⁰ €	CUBA
PLAYA BAVARO Urriaren 24an Madritik hegaldia 7 gau 4* hotelean, dena barne	990 ¹⁰⁰ €	
KENIA, SAFARIA Madritik hegaldia 12 egun 4* hotelean	1995 ¹⁰⁰ €	
NUEVA YORK Martxoaren 29an Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean, abjemanduan	1198 ¹⁰⁰ €	

Aukera gehiago gure bulegoan eta www.hernanibidaiek.es www.bidaibila.com

HERNANI BIDAIAK
Urbeta, 6
943 33 00 49

JARRAITU: